



AUSARTAN RACE oztopo-lasterketa bat (OCR) da, Bilbao Exhibition Centre (BEC) eta Innevento Sports-ek antolatua, eta 2023ko martxoaren 18an eta 19an, larunbata eta igandea, BECen instalazioetan ospatuko da.

Jarraian, proba behar bezala garatzeko araudiko puntu nagusiak azalduko ditugu. Parte-hartzaile guztiek instalazioekiko eta ingurumenarekiko errespetuarekin bat datorren banakako portaera izateko konpromisoa hartzen dute. Lehiaketan izena emateak araudi hau, kontrol- eta sailkapen-sistemak eta lasterketaren antolaketatik datorren edozein jarraibide eta arau onartzea dakar.

1-. PARTE HARTZEA

Parte hartzeko gutxieneko adina 14 urte da (2009ko urtarriletik aurrera jaiok). Adin horretatik beherakoek gurasoek/legezko tutoreak sinatutako baimena beharko dute, eta dortsala jaso aurretik entregatu beharko dute. Adin nagusiko pertsona batek ere sinatu ahal izango du, adingabearen erantzule dela adierazten badu. [Hemen](#) aurki dezakezu beharrezko dokumentuaren adibidea (izena, abizenak, NANA eta legezko tutorearen kontaktua; adingabeari bere baimenarekin proban parte hartzeko baimena, izena, abizena eta guzti).

Izena ematean, pertsonak osasun-egoera ona dutela eta kirol-lehiaketak dakartzan arriskuak ezagutzen dituztela baieztatzen dute. Erakundeak kirol-aseguru bana emango dio inskribatu bakoitzari. Zerbitzu horretatik harago, antolatzaileek uko egiten diote parte-hartzaileei edo ikusleei, probaren aurretik, bitartean edo ondoren, gerta dakizkiekeen kalte moral edo materialen gaineko erantzukizun orori.

2-. INSKRIPZIOA ETA ITZULKETAK

Izen-emate guztiak www.ausartanrace.com helbidean egingo dira eta ez da aukerarik egongo proba egunean bertan izena emateko. Izen-emateak martxoaren 15ean, goizeko 11:00etan itxiko dira.

Ez da inolako itzulketarik egingo, arrazoia eta zirkunstantzia edozein dela ere. Antolatzaileek ekitaldiaren data eta/edo ordutegia aldatu behar badute, 3 aukera egongo dira: izen-ematea beste txanda batera pasatzea (ahal izanez gero), inskripzioa hurrengo ediziorako mantentzea edo %100a itzultzea.

Izena aldatzeko aukera egongo da dortsala beste pertsona bati transferitzeko, 6 euroko kostuarekin. Aldaketa egin nahi duen pertsonak parte-hartzaile berriaren datuak eman beharko dizkio antolakuntzari. Inola ere ezin izango da parte hartu beste parte-hartzaile baten dortsalarekin, pertsonala eta besterenezina baita. Hori gertatuz gero, edizio honetan eta hurrengo bietan parte hartzea galaraziko zaio.

3-. PREZIOAK ETA EPEAK

Hiru prezio-txanda egongo dira:

- Izen-ematea irekitzen denetik urtarrilaren 19ra arte, prezioa **40 eurokoa** izango da.
- 1. epea amaitzen denetik otsailaren 19ra arte, prezioa **45 eurokoa** izango da.
- 2. epea amaitzen denetik martxoaren 15era arte, prezioa **50 eurokoa** izango da.

4-. KATEGORIAK ETA SARIAK

LARUNBATEAN, **kategoria bakarra (ez lehiakorra)**, **AUSARTAN** delakoa, egongo da, baina bi modalitateekin: banaka eta taldeka. Irteera-txandak bateratuak izango dira, antolakuntzak txanda bakoitzean ezartzen duenaren arabera. Era horretan, pertsona askoren taldeak lehiatu ahal izango dira aldi berean, banaka izena eman duten pertsonekin batera.

Ez da kronometrajerik edo sailkapenik egongo, beraz, ez da saririk egongo. Bi opari emango dira, bata banakako mozorro onenarentzat eta bestea mozorro onena duen taldearentzat, taldekide guztiek gozatu ahal izango dutena. Babesleen opariak edo esperientzietarako gonbidapenak izan daitezke.

IGANDEAN, **lau kategoriatan** parte hartu ahal izango da. Horietako 2 lehiakorrak izango dira, eta hortaz, kronometratuak. Kategoria herrikoian denbora ez da izango garrantzitsuena, oztopoak gainditzen diren bitartean gozatzea baizik.

- 1. AUSARTAN PRO:** banakako parte-hartzaileak (gizonezkoak eta emakumezkoak). Lehenengo irteeran aterako dira, eta nahitaez gainditu beharko dituzte oztopo guztiak. Behar adina aldiz saiatu ahal izango dira, eta baldintza bakarra izango dute: beren txanda itxarotea, baldin eta oztopo hori gainditzeko zain parte-hartzaile gehiago badaude. Oztoporen bat gainditu ezean, 15 burpee egin ondoren jarraitu ahal izango du proba. Zehapen hori betetzen ez bada, parte-hartzailea kategoria horretatik kenduko da, eta AUSARTAN gisa amaitu ahal izango da.
SARIA: txapela gizonezko eta emakumezko onenari. Babesleen posible opariak.
- 2. TALDEAK:** Sailkapen berezi bat egongo da taldeentzat, kategoria honetan izena eman beharko duten 4 kideko taldeak bilduko dituena, proba elkarrekin egin eta aldi berean helmugan sartu beharko dutenak. Kideetako batek ezin badu proba amaitu, gainerako kideei AUSARTAN kategoriarara pasatuko zaie.
SARIAK: definitzeke. Talde desberdinen artean banatuko dira: gizonezkoen taldea (4 mutil), emakumezkoen taldea (4 neska) eta talde mistoa (sexu bateko 3 kide eta besteko bat, edota 2 neska eta bi mutil).

3. **AUSARTAN:** Hirugarren txanda irtengo dira. Nahi duten parte-hartzaile guztiek eman ahal izango dute izena, eta ez dute sailkapenik edo saririk izango, kategoria hau ez baita lehiakorra. Publiko guztiek OCR motako lasterketa batekin gozatzeko pentsatuta dago, eta oztopo bat gainditu ezin badute, lasterketa jarraitu ahal izango dute.

***SARIA:** banakako eta taldeko (2 pertsona edo gehiago) mozorro onenari.

4. **HEROIAK:** Kirol inklusiboa bultzatzeko txanda. Dibertsitate funtzionalen bat duten pertsonen oso prezio txikian apuntatu ahal izango dira. Zuzeneko arduradun batekin lagundu beharko die, ibilbide osoan zehar behar izanez gero. Arduradunaren datuak heroiaren inskripzioan jaso beharko dira. Arduradun horrek ez du ezer ordaindu beharko bere partaidetzagatik.

SARIRIK GABE.

***OINARRIAK: BANAKAKO ETA TALDEKO MOZORRO ONENAREN SARIA**

Antolakuntzako kidez eta marka babesleen ordezkariak osatutako epaimahai batekin erabakiko du zein den mozorro irabazlea, bai banakakoa bai taldekoa, originaltasun, elaborazio eta karakterizazio irizpideetan oinarrituta. Taldeak bi pertsona edo gehiagok osatuko dituzte. Larunbat arratsaldean zein igande goizean parte har daiteke lehiaketan, betiere izena AUSARTAN kategorian eman gero.

Irabazleak probaren ondorengo astean jakinaraziko dira ekitaldiaren sare sozialetan. Halaber, posta elektronikoz jakinaraziko zaie. Mozorrotuta parte hartzen duten pertsonen argazki bat hartu behar dute, argazkilari ofizialaren eskutik edo bere kabuz (sare sozialetan partekatuz eta @AusartanRace etiketatuz, antolakuntzak argazkia ikus dezan).

5.- IRTEERA-TXANDAK

Irteera-txanda izena emateko orduan aukeratu beharko da. Gutxi gorabeherako ordutegia izango da, eta antolakuntzak parte-hartzaile edo talde bakoitzaren ordu zehatza adieraziko du. Irteera-ordu bakoitzean hainbat txanda egongo dira, antolatzaileek ezarriko dituztenak parte-hartzaile kopuruaren arabera. Irteera-ordutegia aukeratzeak EZ du esan nahi irteera ordu horretan izango denik, baizik eta irteera ordu-tarte horren artean egongo dela. Ordutegi ofizialak lasterketa baino egun batzuk lehenago bidaliko zaizkie izena eman duten pertsonen parte-hartzaile kopuruaren arabera aldaketak egon baititzakete.

Aukerak hurrengoak izango dira, eta eskuragarri dauden plazen kopurura mugatuta egongo dira:

LARUNBATA (AUSARTAN kategoria):

17:00etatik 18:00etara.

18:00etatik 19:00etara.

19:00etatik 20:00etara (azken irteera)



IGANDEA

AUSARTAN PRO: 10:00etatik 10:45etara // 10:45etatik 11:30etara

TALDEAK: 10:30etatik 11:15etara // 11:15etatik 12:00etara // 12:00etatik 12:45etara

AUSARTAN: 12:00etatik 12:45etara // 12:45etatik 13:30etara

HEROIAK: 13:30etatik 14:00etara (azken txanda)

Antolakuntzak beretzat gordetzen du txandak batzeko, bereizteko, sortzeko edo ezabatzeko ahalmena, txanda bakoitzean inskribatutakoen arabera, probak behar bezala funtziona dezan.

6-. IBILBIDEAREN ARAUDIA ETA OZTOPO MOTAK

Parte-hartzaile bakoitzak proba, zirkuitua eta arauak ezagutzeko ardura du. Antolakuntzak parte-hartzailearen gida bat editatu eta bidaliko dio inskribatu bakoitzari. Bertan, parte-hartzaileek aurkituko dituzten oztopoen berri emango da. Horrela, oztopoak behar bezala gainditzeko azalpena izango dute, eta ez badira gainditzen, ze zigorra eukiko duen, denbora galduz edo ariketa bat eginez.

Korrikalariak identifikatzeko dortsala paper moduan emango da irazgaitzekin batera, eta kamisetaren aurrealdean edo atzealdean agerian eraman beharko da. Kategoria bakoitzak dorsal-kolore desberdina izango du. Lehiakortasun-kategorietako parte-hartzaileei txip bat emango zaie, denbora ofiziala izateko galdu beharko ez dutena.

Proba arropa eta oinetako egokiekin egin beharko da, eta erabat debekatuta dago kamisetarik gabe egitea eta kanpoko laguntza edo edozein propulsiio-bide erabiltzea, hala nola txakurrak, irristailuak, bizikletak, etab.

Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egongo da, konoekin, noranzko erreiak bereiziz eta, behar izanez gero, oztopoak adierazten dituzten karteekin. Ibilbide osoan ez da kilometroko erreferentziarik egongo; beraz, pertsona bakoitzak jakin beharko du zein puntutan dagoen. Proba amaitutakoan, seinale guztiak jasoko dira.

Ibilbideak 4,5 km izango ditu (gutxi gorabehera) eta BECetik (inguruko kamioi-gunetik) igaroko da. 28 oztopo horietako gehienak artifizialak izango dira, eta antolakuntzak ibilbidean zehar banatuko ditu, jendetzak eta itxaronaldiak saihesten saiatzeko. Oztopoetan, antolatzaileko langileak egongo dira, oztopoa nola gainditu adieraziko dutenak.

Oztopoetan erakundeko langileak egongo dira, oztopoa nola gainditu adieraziz. Oztopoa behar bezala gainditzen ez bada, ez da parte hartzen ari den kategoriako saririk jasoko. Ez dago epaile ofizialik, erakundeko pertsonak dira, eta ez dituzte banan-banan gainbegiratu zigortutako pertsonak. Norbere buruaren aurka lehiatzen den proba bat da, burpeiak gaizki



egitea, ez egitea edo tranpak egitea erabakitzen duena bere erantzukizuna izango da soil-soilik.

Hurrengo estekan behin-behineko zirkuituaren mapa ikus dezakezu. Zehaztutako oztopoak ez dira zertan behin betikoak izan:

<https://www.google.com/maps/d/u/0/edit?mid=1LZuucRf5yWS0CldAOyXSRdrj1SRb20U&usp=sharing>

7-. GEHIENEO DENBORA PROBA AMAITZEKO

Gehieneko denbora egongo da AUSARTAN RACE osatzeko. Kategorien arabera izango da, eta dortsalak kolore desberdinetakoak izango dira, erraz identifikatzeko.

Larunbatean mundu guztiak, irteeratik **ordubete eta 50 minutuko** denbora muga izango du.

Igandean honako hauek izango dira:

AUSARTAN PRO: **ordubete eta 05 minutuko** denbora-muga.

TALDEAK: **ordubete eta 35 minutuko** denbora-muga.

AUSARTAN ETA HEROIAK: **ordubete eta 50 minutuko** denbora-muga.

8-. DESKALIFIKAZIOAK

Antolakuntzako edozein kidek parte-hartzaile bat probatik kentzeko ahalmena du, baldin eta:

- Egoera fisiko txarra adierazten duena eta/edo arriskuan jartzen duena bere osasuna eta beste parte-hartzaileena.
- Erakundeak adierazitako araudia edo arauak ez betetzea.
- Ibilbidearen zati bat debekatutako gunetik egitea.
- Kirolaren aurkako jokabidea adieraztea.

9-. PARTE-HARTZAILEAREN POLTSA

Parte-hartzaile guztiek honako opari hauek jasoko dituzte:

- Probaren kamiseta
- Dortsala eta kateorrazak
- *Finisher* domina
- Gure babesleen flyerrak eta opariak (beharbada)

10-. DORTSALEN BANAKETA

Dortsalen banaketa BECen sarreran izango da, martxoaren 18an, larunbata, 16:00etatik 19:00etara.

Probaren egunean, martxoaren 19an, igandea, **bakarrik** 48 ordu lehenago gutxienez jakinarazi dutenei emango zaizkie. Goizeko 8:30etatik irteera bakoitza baino 30 minutu lehenagora arte. Irteeren ordutegiaren arabera lehenetsiko da entregatzea. Dortsala jasotzeko, nahitaezkoa izango da NANA edo inskripzio-egiaztagiria aurkeztea (gauza bera, inskribatutako beste pertsona baten izenean jasotzen bada).

Gorabeheraren bat gertatuz gero eta korrikalariren bat inskribatuta ez badago, artekariaren alde ebatziko da, egindako ordainketaren egiaztagiria aurkeztuz gero. Dortsala proba hasi aurretik galtzen bada, ezin izango da parte hartu.

11-. ZERBITZU OSAGARRIAK

Parte-hartzaile guztiek honako zerbitzu hauek izango dituzte:

- Zerbitzu medikoak (arreta emateko helmugan eta ibilbidean zehar)
- Arropazaindegia (BEC barruan, sarrerako gunean)
- Komunak (BEC barruan, sarrerako gunean)
- Aldagelak (BEC barruan, Be Up gimnasiokoak)
- Argazkiak (webgunean eta sare sozialetan argitaratuko dira).

12-. DERECHOS DE IMAGEN Y PROTECCIÓN DE DATOS

2023ko AUSARTAN RACE-ean izena emateak araudi hau onartzen dela esan nahi du. Era berean, berriazko baimena ematen zaiola erakundeari oinarritzko datuak (izena, abizenak, IFZ/AIZ/Pasaporte, jaioteguna, sexua eta bizilekua) eta irudiak tratatzeko, egoki irizitako zabalkunde- eta publizitate-helburuetarako.

Bestalde, nahitaez esan behar da parte-hartzaileak baimena ematen diola antolakuntzari bere parte-hartzea osorik edo zati batean grabatzeko, baita bere irudia erabil dezan probaren irudia modu guztietan sustatzeko eta zabaltzeko ere (irratia, prentsa, bideoa, argazkia, DVDa, Internet, kartelak, komunikabideak, etab.), eta bere merkataritza- eta publizitate-ustiapenari buruz egoki irizitako eskubide guztiak lagatzen ditu, inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik gabe. Proba honetan inskribatze hutsagatik, parte-hartzaile guztiek isilbidez onartzen dute INNEVENTOren antolakuntzak, bere kabuz edo baimendutako hirugarren erakundeen bidez, datu pertsonalak kirol-, sustapen- edo merkataritza-helburuekin tratatu edo zabaltzea. Nolanahi ere, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 5/1999 Lege Organikoan eta Informazio Gizartearen Zerbitzuei eta Merkataritza Elektronikoi buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legean ezarritakoaren arabera, interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezereztzeko eta horien aurka egiteko eskubideak balia ditzake. Horretarako, legeak ezartzen duenaren arabera, INNEVENTOren egoitza sozialari eskatu beharko zaio, idatziz (Kale Nagusia 45, 1. solairua, Bilbo).



Inskripzioak erakundeak, udalak, babesleak eta laguntzaileak edozein ezbeharren aurrean inolako erantzukizunetik askatzen direla eta ondoren azaltzen dena irakurri, ulertu eta eskuratu izana esan nahi du: *egoera fisiko onean nagoela ziurtatzen dut. Ekitaldian parte hartzearen ondoriozko erantzukizunetik salbuesten ditut INNEVENTO, BEC, babesle komertzialak, zuzendariak, langileak eta gainerako antolatzaileak. Uko egiten diot ekitaldian parte hartzearen ondorioz sor daitezkeen legezko ekintza guztiei.*

13-. INFORMAZIO GEHIAGO ETA KONTAKTUA

Araudi honetan jasotzen ez den guztia probaren antolakuntzak zabalduko du, eta edozein kontsulta egin ahal izango da info@ausartanrace.com helbidean.

